

DOCTOR DESEO

Busco en tus labios
Lo mejor del Deseo



Doctor Deseo (Bilbo, 1986) ez da nolanhako irrika, ez zenbaki-irrika, ez urte-irrika, ez salmenta-irrika. Ez da datu estatistikoa soila eta soila. Mundu honi aurpegiatuko dio bizitza hemen eta orain baino ez dugula bizi izango, eta horri egingo dio etengabe gorazarre Doctor Deseo taldeak, beste guztia fikzioa da, inongo erlijio-talaitatik ezin izango dena arrazoitu.

Doctor Deseo taldearekin izandako solasaldien laburpena da hurrengo lerroetan irakurriko duzuen, non erakutsiko den Doctor Deseo taldeak duen ekimenak berezko gaurkotatua duela, desiratzen duen plazer garbia kontuan hartuta, konspiratzen, bizitzeko, eta, nola ez, esistitzeko menderaezinez diren pentsamenduetan. Goitik beherako gogoia dena gera dadin emozio zirrargariaren ikuspuntutik blai eginda. Doctor Deseo taldeak desiraren hoberena aurkitu nahi du abestietan eta abestiek, merkadoteknikatik urrun dauden lurralde disidentek nahi ditu. Premisa nagusizat hartuta musika sentitu eta bizi duena musikazale porrokatua dela, Doctor Deseo taldea musikaren inguruko hainbat estiloren xurgatzaile da.

Doctor Deseo taldeak dokumental zabala eskainiko digu, baina ezin da berau hartu haien biografia izango balitz bezala. Dokumentalak erakutsiko digu taldeari buruz izan daitekeen ikuspegi baten bat, baina besteak baztertu gabe. Bideo grafik-ek egin du ekoizpenari dagokion lan biribila, eta egileak dira Xabier Agirre, Carlos Iglesias, Eukeni Arriortua, David Maeztu eta Xabier Zabala A. Dokumentalean Doctor Deseo taldea gertutik ezagutzen duten musikari, idazle, kazeteri eta artistak daude (Kaki Arkarazo, Nando de la Casa, Kike Saenz de Villaverde, Josu Monge, Aiora Renteria, Edorta Jimenez, Kirmen Uribe, Itziar Ziga, Joseba Martín, Fernando Garayoa) eta bakoitzak Doctor Deseo taldearen gainean dituen iritzia doaz, emozioak, desirak, iradokizun eta lizunkeriekin.

Doctor Deseo taldeak liburu itxura eman dio DVD eta CD bilduma honi, eta CD euskarrian hiru abesti berri sartu ditu. Musika kutsu anitza duen helburura ailegatu da bide desberdinak arakatu ostean. Doctor Deseo taldearen historia dena "Busco en tus labios" abestiarekin hasi zen, baita lehiaketa bat irabazi ere, eta orain honek guztiak du segida "Busco en tus labios" kantu berri batekin, indartsu eta rockeroarekin, high energy dela esango dugu. Bigarren abestia (Equivocarse hasta acertar) izango da betiko Doctor Deseo taldearen musika estilotik hurbilen egongo dena. Pop ukitu zehatzak The Beatles taldearen girora gerturatuko gaituzte segituan, bolero oneak zipiritin azidoekin dotorezia eta bizipoza dakarkigute. Hirugarren kantuan (Aunque aún siga siendo de noche) padura psikodelikoetan murgilduko da taldea, eta bere alderdirik The Clash zaleena aurkeztuko digu dantza aretoetako pistan egongo bagina bezala lelo hegalariaren laguntzarekin. Doctor Deseo taldearen egurrak bera berotzeko balio dio. DVDko abesti guztiak Cesar Ibarretzek nahastu eta ekoitzi ditu. Hiru kantu berriak Raul Lomasen BSO estudioan eta Transitory Resolution estudioetan egin dituzte. Zuzeneko irudiak Gaua Pro-k grabatu zituen. Musikari laguntzaileen atalean Edu Basterrak baxua jo du "Aunque aún siga siendo de noche" eta koruak egin ditu "Equivocarse hasta acertar" abestian. Joe Gonzalezen esku geratu dira saxo baritonoa eta tenorra. Lur Merinori aurreko diskoen diseinuetan bezala egikitu zaio arte grafikoa lantzea.

Bira berriko Doctor Deseo taldearen zuzenekoetan entzungo dena, hark bere ibilbide luzean jorratu dituen musika bide desberdinek osatuko dute. Doctor Deseo taldearen kontzertuek hasiera bizia izango dute, high energy terminoak bikain islatzen du zer izango den. Gero kabaret alorreko poparen bidea atonduko du. Bukatzeko, dancing eta disko-soinuaren eragina duten abestiek amaituko da zuzenekoa, izerdia eta alaitasuna. Ikuskizun berriekin, Doctor Deseo taldeak antzokietarako propio prestatu zuen zuzenekoa albo batera utziko du. Aurreko biraren antitesia da zuzeneko bira berria.

Doctor Deseo taldea zirrara eta emozioz beteriko lurralde desberdinetan barna ibiliko da entzulearen arreta erakarriz: samurtasuna, emozioa, sexua, maitasuna, mina, misterioa, ametsak eta desirak. Doctor Deseo taldearen diskoak agian beste izenburu bat izan zezakeen, greatest hits adibide, baina ez. Nahita ihes egin du horrelako izenburutik. Baina finean, hori da. Doctor Deseo taldeak 120 abestitik gora grabatu ditu orain arte euren diskoetan, eta zaila egingo zaien zaletu guztiak asetzea goitik behera. Doctor Deseo taldearen 2014ko bira Doctor Deseo taldeak berak amets egindako zuzenekoa eskainiko du. Zuzeneko hori apropos eta apartekoena izango litzatekeena Doctor Deseo talde berarentzat ere bai, 120 minututik gorako emanaldi berri eta bikaina, ikusle guztien jaramona pizkuko duena etengabe kontuan hartuta zer nolako egoera bizi duen gizarteak gaur egun.

Martxoak 7 Durango (Plateruena)
Martxoak 14 Donostia (Intxaurrenoko Kultur Etxea)
Martxoak 15 Donostia (Intxaurrenoko Kultur Etxea)
Martxoak 22 Gasteiz (Jimmy Jazz)
Martxoak 29 Atarrabia-Villava (Totem)
Maiatzak 2 Bilbo (Kafe Antzokia)
Maiatzak 3 Bilbo (Kafe Antzokia)
Maiatzak 17 Barcelona (Razzmatazz)
Maiatzak 30 Madrid (Penelope)

Francis Diez: ahotsa eta gitarra
Toro: gitarrak eta koruak
Raul Lomas: teklatuak
Josi Gimenez: baxua eta koruak
Txanpi: bateria

ritxi aizpuru (2014ko otsailaren 27)

elkarrizketak 690704255
ritxi@baga-biga.com

